

Kooperatiba eta WWF 2004tik ari dira elkarrekin lanean**EROSKI-K AURTEN ERE BAT EGINGO DU "PLANETAREN ORDUA"
EKIMENAREKIN, ETA IRAUNKORTASUNAREKIN DUEN
KONPROMISOA INDARTUKO DU**

- Datorren larunbatean, EROSKIk bat egingo du ingurumenaren alde munduan egiten den itzalaldi sinbolikorik handienarekin; aurten, "Itzali argia. Defendatu Planeta" leloarekin.
- WWF World Wide Fund for Naturek sustatzen du ekimena, eta aurten 20 urte beteko ditu ingurumenaren defentsan munduan egiten den saiarik handienak.
- EROSKI eta WWF elkarrekin ari dira joan deneko hogeï urtean kontsumo arduratsua sustatzen.

Elorrio, 2026ko martxoaren 27a.- [EROSKI](#)k hamabosgarren urtez egingo du bat [WWF](#)ren "Planetaren ordua" kanpainarekin. Nazio Batuen Erakundearen babesarekin antolatzen dute, eta EROSKIk itzalaldi sinbolikoa egingo du Elorrioko egoitza sozialean eta EROSKI Fundazioaren www.consumer.es webgunean; martxan jarraituko du webak, baina argi apalagoarekin. Horretaz gainera, ekimenaren berri emango du webgunean eta sare sozialetan, eta langileen artean. Mundu osoko milioika pertsonak itzaliko dute argia ordubetez (20:30etik 21:30era bitartean, martxoaren 28an, mundua kontzientziatzeko ingurumenaren garrantziaz eta klima aldaketaren kontrako borrokaz.

Naturaren alde munduan den mugimendurik handiena da Planetaren Ordua; leloa du "Itzali argia. Defendatu Planeta", eta 2026. urte honetan hogeigarren urtea beteko du. Ekimena Sidneyn sortu zuten (Australia), 2007an, eta 190 herrialde eta lurralde baino gehiagotako jendeak parte hartzen du: mundu osoko monumentu eta eraikin enblematikoetan izaten diren argiak itzaltzen dituzte, baita etxeetan eta enpresetan ere, klima aldaketaren eta biodibertsitate galeraren aurka daramagun borroka sinbolizatzeko.

"Aurten ere, EROSKIk bat egingo du WWFren ekintza horrekin: ingurumenaren alde sentsibilizatzeko egiten den ekintza globalik handiena da, eta klima aldaketaren arazoa azpimarratzeko sinbolo bat. EROSKIn ongi dakigu kontsumitzaileak gero eta zorrotzagoak direla iraunkortasun irizpideekin; horregatik, egunero egiten dugu lan kontsumo arduratsua egiteko modua izan dezaten", adierazi du **Alejandro Martinez Berriochoak**,

Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendari eta EROSKI Fundazioko zuzendari nagusi denak.

Planetaren erronka handia: 2030erantz

2025 mundu mailan erregistratu den urterik beroenetako bat izan da —2024 eta 2023 bakarrik izan ditu beroagoak—, eta tenperatura errekorren joera sendotu da. Testuinguru horrek erakusten du atzera bueltarik ez duten inpaktuak saihesteko muga kritikoa hurbil dela. Era berean, muturreko fenomenoak gero eta sarriagoak dira. Espainian, azken hilabeteetan inpaktu handiko borrasa eta eurite segida bat izan da, eta horrek uholdeak eta arriskuak ekarri ditu. Alabaina, aurrerapenak ez dira behar bestekoak izaten ari: trantsizio energetikoa ez doa berdin toki guztietan, eta oraindik erregai fosilen mendetasun handia dago.

Alde horretatik, EROSKIk errepide mapa bat garatzen jarraitzen du; besteak beste: bere prozesuak eta instalakuntzak energia aldetik eraginkorragoak egitea, iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea, mugikortasun iraunkorrerako aukerak txertatzea eta balio katean laguntzea produktuek eta zerbitzuek inpaktu txikiagoa izan dezaten.

Aurreko ekitaldian, EROSKIk emisioak gutxitzen jarraitu zuen; hori dela eta, hirugarren Lean & Green izarra jaso zuen, egiaztatu baitzuen bere emisio logistikoen %35 apaldu zuela 2015arekin alderatuta. Lorpen horrekin, konpainiak jarraitzen du iraunkortasunaren arloan duen lidergoa sendotzen, eta lanean segitzen du bere emisioak gutxitzeko eta laugarren izarra eskuratzeko; azken helburua da 2050erako klima neutraltasuna lortzea.

Gainera, EROSKI pixkanaka dendetako energia eredu berria inplementatzen ari da bere sarean. Eredu horren bitartez, besteak beste ingurumen arloko ekintza hauek gauzatzen ditu: LED argiztapena eta hozteko altzarietan I+G arloko azken aurrerapenak, berotegi potentzial txikiagoa dutenak. Horren adibide dira Lakua-Arriagako denda, Gasteizko Jundizkoa eta Bartzelonako Zal plataforma, Leed Gold ziurtagiria duena. Zigilu horrek ziurtatzen du eraikina iraunkorragoa dela eta ekoeraginkortasun estandar zorrotzekin eraikia dagoela.

Iberdrolak eta EROSKIk beste pauso bat eman dute beren lankidetzak hitzarmenean, eta elkarrekin arituko dira supermerkatu kateko saltoki guztietan, karbono aztarna gutxitzeko elektrifikazio arloko soluzioak bilatuz. Hala, EROSKIren saltegi eta egoitza guztiek emisioak gutxituko dituzte, eta, askotariko ekintzen bidez, aurreztu egin ahalko dute energiari lotutako fakturretan. Iturri berriztagarrietatik datorren elektrizitatea da energia aldetik soluziorik eraginkorrena. Horrela ez du egon beharko erregai fosilen mende.

EROSKIk %50 baino gehiago gutxitu du 1 eta 2 irismeneko bere karbono aztarna 2017tik hona; horrek esan nahi du 172.503 tona CO₂ren baliokidea saihestu duela, hau da, gutxi gorabehera Espainian 100.000 auto berrik 10.000 km egitean igortzen dutena.

Bestalde, EROSKI lanean ari da merkaturatzen dituen produktuen inpaktua gutxitzeko: 3.200 erreferentziatik gorako gama du iraunkortasun arloko ziurtagiriekin, hala nola zigilu ekologikoa, MSC, GlobalG.A.P eta FSC®. Horretaz gainera, balio katearekin duen lankidetzaren areagotu du zenbait ekimenen bitartez. Besteak beste, Hornitzaileei Lagun Egiteko Programa, 2025ean, 394 enpresatara iritsi dena: guztira, 4.500 formakuntza ordu eman ditu iraunkortasunaren arloan, eta etengabeko hobekuntza bultzatu du, hala nola karbono aztarna, ontzien ekodiseinua eta ekonomia zirkularra. Era berean, jarraitzen du ontziak hobetzen, plastiko aztarna gutxitzeko eta birziklagarritasuna handitzeko. Alde horretatik, 800 erreferentzia baino gehiago ditu ekodiseinuaren bidez landuak.

20 urte baino gehiago elkarlanean

EROSKI eta WWF joan deneko 20 urtean ari dira elkarrekin ingurumen arloko politikak aurrera ateratzen, hala nola energia eraginkortasuna, kontsumo arduratsua, arrantza iraunkorra eta jardunbide iraunkor egokikoak diren EROSKIren markako produktuak.

Era berean, [EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolak](#) Elikadura eta Ohitura Osasungarri buruzko Heziketa Programa bat antolatzen du Espainia osoko ikastetxeekin elkarlanean, eta WWFk eduki pedagogikoak sortzen ditu iraunkortasunaren inguruko modulu espezifiko baterako.

EROSKIri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkaturak —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Agencia de Prensa de EROSKI

Nora Garay

Nagore García de Vicuña

Tel: 677 71 95 68

Tel: 630 98 66 19

kaixo@enemasene.eus